

## ARALAR-MENDI ESAUNDAZ JANTZIA \*

*Aralar* gure mendi nagusietako bat da, arloska eta mailloak an-emen ditua-na, larreleku aundia eta alde batzuetan basoz jantzia.

Ba-du ordea gizaki-jantzia ere: saroi, artzai-txabola eta eskortak sarri, tri-kuarrik ugari eta auen, naiz inguruko mailloen eta arpe askoren mintzoa, ots, auezaz dabiltzan esaundak: sineste eta ipuiezko estalgarri bat alegia.

Aipa ditzagun estalgarri onen ikusgune batzuek bederen.

*Irabi* izeneko etxe bat ba-da Amezketa'n. Ango alaba *Mari* mendian abere-zai ibiltzen omentzan.

Bein, abereak etxeratzean, beigorria uste gabez mendian utzi.

Amak alaba *Mari*'ri bei-billa mendira joan zedilla agindu omentzion.

*Mari*'k ordea ez joan nai.

Orduan amak madarikatu omentzuan *Mari* eta esan: «Deabruak eramango al au, beia ekartzen ez ba-dun.»

Irten omentzan *Mari* bei-billa. Mendian bei gorri bat agertu omen zitzaion. Berea zuelakoan, *Mari*'k isatsetik eldu omentzion. Bei gorri ura ordea ez izan egiazko beia, *Marizulo*'ko irelu-*Mari* baiño. Onek bere arpera eraman omentzuan *Irabi*'ko alaba gaixoa. *Marizulo* Larrunarri'n, *Txindoki* izeneko tokian dagon leize bat da.

*Aralar*'go leize batetik ateratzen omen ditu *Mari*'k odei-laiño aundiak, *Go-rriti*'n diotenez.

\* Argitaragabea. 1979 - ilbeltzaren 20ean emandako hitzaldia, Tolosan.

*Puttergi'ko Damea* esaten diote Arbizu'n Mari ireluari, ustez eta mendi ar-tako leizean bizi dala-ta.

Aralar mendiaren sartaldeko egalean dago *Sagastarri* izeneko aitza. Onen gaillur-ondoan ba-da arpe aundi bat, ateka sartalderuntz begira. Barruan bide luzeak, baita ur garbizko osin bat ere.

Inguruan ikazkiñak ari omentzien beren lanean. Mutiko bat urketara bial omentzuten arpera. Baiñan bereala, izuturik, ur gabe itzuli omentzan beren txabolara.

Ikazkin-nagusi bat igo omentzan gero urketara. Baiñan au ere beldurtua eta ur gabe itzuli omentzan lasterka.

Neskatx bat, soin egoki eta ederrekoa, arpearen atekan zegoala eta ikuskari aren izutu zituala omentzioten. Leizeetako Mari ote zan susmoa zuten ikazkiñak.

Aipa degun *Sagastarri* aitzaren oiñean ba-da leize beldurgarri bat: *Ubedi'ko leizea*.

Esaera bat, an barrunen gizaki-tankerako ireluak bizi dirala, bekokian adar bi dituztenak, baita zezengorri itxurakoak ere.

Leize-atekaren ondoan zebiltzan lagun askok entzun oi omen zituzten barrungo abots edo kantu eder eta soiñu zoragarriak.

Ondoko bidetxigorrean zijoaztenak arri batzuek barrura aurtikitze oitura zuten, esanaz: «Au iretzat eta ni Jainkoarentzat.»

Leize oni buruz, Ataun'go esaunda batek adierazten digu gertaera beldurgarri bat. *Imatzene* baserriko iru anai, Ostiral-santuz, *Ubedi'ko* saroiria igo omentzien beren ardiakin. An zebiltzala, bertako leizetik iru txekorgorri irten omentziran eta artzaiengana omentzetortzen lasterka. Iru anaiak, izututa, iges *Agaoz*-mendian gora. Txekorrak atzetik gainean. Iru aietan bat larritua *Agaoz*ko arratean ill omentzan; bigarrena, *Sinolatza'ko* saroiari; irugarrena etxera iritxi, baiñan andik bereala ill ura ere.

*Putterri*-gaiñeko armalloetan ba-da arpe edo leize bat. Bere atekan oi u egiten ba-dezu, barrundik eldu dan oiartzuna entzuten dezu. Esaera ere ba-da ango irelu edo etxajauna mintzo dala.

Beste ipui batek dionez, *Putterri'ko* arpeak iparraldetik egoaldeko mailloraño emen du ibilbidea. Egoaldeko ateka-aurrean zelaix bat, onen buruan epuru bat eta onen oiñean, lurpetua, aari baten narrua, urrez betea. Toki ori maillo luze baten erdian bai dago, ezin zindezke ara joan arpe barrundik ez dala. Arpeko ibilbidea ordea iñork ez du asmatzen.

*Ernaga* edo *Erenaga* da Aralar'go beste toki izentatu bat. An bizi omentzan artzai bat, bere saroi eta txabolan. Eskortan ardiak jeizten ari zala, suga txiki bat agertu omentzitaion. Artzaiak esnea eskaini berari eta sugeak irentsi.

Andik aurrera, esnea jeiztekoan, txistu egiten omentzuan artzaiak, eta sugeak, bereala etorrita, esne-xorta bat edaten.

Egun batez artzaia erbestera joan omentzan. Urte batzuen ondoren *Ernaga'ra* itzuli omentzen, adiskide batzuek lagun zituala. Bereala sugeazaz oroitu

eta txistu egin. Suga aundi bat laster agertu omentzan eta artzaia, oiñetik lepora, kueztan-kueztan inguratu eta azkenik ito.

San-Migel'go elizañoa leize-ataka bat estaltzen duela omen dago.

Leize ortan iraunsugea antziñan bizi omentzan. Onek, gosetzen zalarik, erritara jetxi eta giza-iltze asko egiten omentzuan.

Orduan erriak, aldian bein lagun bat iraunsugeari bere leizera bialtzea erabaki omentzuten. Ortarako guztien artean, txotx-ala-motx egiñaz, aldi bakoi-tzean leizera nor igo bear zuan jakiten zuten.

Bein neska gazte bat, txotxa berari ala irtenda, leize-atakan, iraunsugea noiz etorriko, omen zegoan. Teodosio Gofi'koa an gertatu eta berau, neskearen lekuan, iraunsugeari itxaropen geldittu.

Iraunsugea ba-zetorrela ikusi zuanean, Teodosio'k San-Migel'i laguntza eskatu. Baita San-Migel Jainkoarekin (buruan gurutzea) etorri eta iraunsugea il.

Elizañoako aldarearen eskubiko alboan zulo bat ageri da, leizearen atekaburua, uste danez. An burua sartuta, kristau-sinismena aitortzen dute erromesak, buruko miñik ez izateko. Aspaldiko oikundea noski.

*Aizaarte-saaltze'*ko artzaia *Agaoz'*ko bere saroian ardiak jeitzen ari zala, gizon bat agertu omen zitzaion zaldiz, suzko zaldian. Eta galde au egin: «Nun dago San-Migelen eliza?» Artzaiak, beldurturik, *Aitare*n egin omentzuan. Bereala zaldia eta zaldizkoa *Ubedi'*ko leizean beera sartu omentzien.

*Putterri'*ko larre-lekuetan zebillen artzai bati zaldi zuri baten gainean gizon bat agertu omen zitzaion eta galde nun zegoen mendi artako leizea. Artzaiak erakutsi omentzion. Zaldizkoak urrezko diru bat saritzat eman, eta alde. Dirua ordea artzaiaren eskuetan auts biurtu.

*Alotza'n* ba-da arluze bat, *Saltaarri* izenekoa. Ipui batek adierazten du nundik-norakoa dan arri ori.

Artzaiak pelotan omen zebiltzan *Murumendi'*n. Jentil bat eurengana etorri eta arri aundi bat, pelotalekuan, ikusi eta galde: «Zertarako dezute arri au?» —«Sakaaritarako», erantzun aiek.

Jentillek ordea «berau ere ez dek pelota txarra au» esanez, eskuan artu omentzuan eta Aralar-aldera jaurtiki.

Bidean bi zati egin omentzan arria: bat *Ausa-gaztelu'*ren oiñean erori eta beste *Alotza'n*.

Arri ori bezelakoak ba-dira geiako ere Aralar'en: *Arraztaran'*go muñoan dagon *Jentillarria*; *Oidui'*ko *Suspentzaitz*, eta *Ata'*ko *Errolanarria*.

*Errolanarria* Errolan'ek San-Migel'dik jaurtikia omen da. Madoz (erria) zigortu naiaz. Baiñan bera jaurtikitzean, besoan soiñekoa korapillatu zitzaialako, etzion bear ainbat indar eman arriari eta au erdibidean gelditu. An dago zutik *Aṭa'*ko sañreran. Gizaki bat dirudi.

*Ausa-gaztelu'*n jentillak bizi omentziran. Gosetea sortu bai zan, jentil bat garitara joan omentzan Naparro'ra. Zazpi idinarru bete gari bizkarrean zituala itzuli omentzan eta, Ausa-azpiko iturrira iritxi zanean, bere alaba antxe, ur-

ketara joana. Alabak esan omentzion: «Utz itzatzu muxkoan idinarruak eta atsedeen zazu, ura edanaz, emen alboan.» Jentillak orduan: «Jakín ba-nu jentil batek atsedeen zezakeala bidean, beste zapi idinarru-gari ekartzen al nituan.»

Aralar-mendin sakabanatuak ageri dira trikuarri asko: orain dala lau milla urte edo, toki aietan zebiltzan artzaíen illobiak noski.

Auetako bat, *Jentillarri* izenekoa, Arraztaran'go ordekatxoan dago. Azkeneko jentillak an daudela ehortziak esan oi dute.

Andik urbil, *Martxabaleta* dalazko zelaian, jentillak dantzán omen zebiltzan jai-arratsalde batean. Sortaldetik eurretara laíño argi bat zetorrela, oartu omentzien. Beren arteko gizon zaar batek, laíñoa ikustean, deadar egin omentzien esanaz: «Nere umeak! Jaio dek *Kixmi* eta gureak egin dik: amildu ni ondoko maillotik.» Amildu omentzuten gaindik beera, eta an ill omentzan jentill zaarra. *Kixmi*, jentillen izkuntzan tximua esan nai duan izena; beragaz Kristo adierazten omentzuten jentillek.

Jentill zaarra ill zan beraz. Gaiñetikoak laíño argiaren aurretik igeska Arraztaran'go orde kara joan eta ango trikuarrian sartu omentziran. Batebatek orde a andik aldegin eta ibarreko lagunai *Kixmi*'ren sorrera adieraztera jetxi. Au izan omentzan lenengo Olentzero.

*Albi*'ko leizea, Aralar'go goitik-beerako zulo beldurgarri bat da. Ala ere, pinta bat ardo irabaztearren, Jose-Mari luzeak (ataundar basagizon, joan dan gizardiaren azkenean ikazkintzan zebillenak), alde batetik bestera leizearen ataka zabala jauzketa batez gurutzatu omentzuan.

Esaera ba-da, *Simon-seme* izeneko giza-iltzaille bat il zanean, aize-zurrunbillo aundiak sortu zirala eta ala iraun ere alik eta *Albi*'ko leizean Simon-seme'ren anima sartu zan artio.

Amezketatik Igaratza'ra bidean ba-da arkaitz aundi ba. *Amabirjiña-arri* deitzen diote. Aren gaiñean agertu omen zitzaion *Andra-Mari*, Amezketá-Loidi'ko artzai-motiko bati. Eta esan omentzion etxetik igo zitzaia iru latatxo eta zazpi teilla, aterbe bat egiteko.

Motikoak Andre-Mari'ren eskaera bere gurasoai adierazi omentzien, baiñan auek ez sinisten alakorik.

Berriko Andre-Mari'k eskaera bera motikoari; gurasoak orde a ez siñisten eta latarik eta teillarik ez ematen. Orduan Andre-Mari Aranzazura joan omentzan arri-gaiñean bere oiñaska utziaz eta esanaz Loidi'n beti izango zala erien bat edo makien bat.

Andre-Mari'ren oiñaskan euriak uzten duan uretan beatzak busti eta «Aita-ren» egin oi dute askok. Baita zerbait nai dutenean txanpon batzuek oparitzat bertan jarri ere, San-Migel'go elizara dijoatzen erromesak ara eraman ditzaten.

Aralar'en ba-da *Intzezelai* izeneko toki bat. Antxe zan pago aundi bat: *Pagomari*.

Esaunda batek dionez, neska bat —*Mari*— artzai omen zebillen inguru artan uda-garaian. Apezgai batzuek, San-Migel'a zijoatzela, ikusi omentzuten neska ori. Aietako bat mintza omentzan pago aundi baten itzalean berarekin

eta itz eman elkarri, berriz ere toki artan, urrengo Abenduaren 24n, bildu bear zirela.

Garaia eldu zalarik, neska igo omentzan *Intzezelai* ra; baiñan motilla ez ageri. *Mari* pagoa aundiaren ondoan itxaroten zegoela, izugarrizko eluasoak artu omentzuan mendia, eta neska, izozturik, bertan ill omentzan.

Neskaren izenetik artu zuan berea —*Pagomari*— pago aundi arek.